

Aktibatu zure auzoa



Gizarte eta
osasun zerbitzuak



Komunikazioa
eta informazioa



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Aire zabaleko
eremuak eta eraikinak



Etxebizitza

Aktibatu zure auzoa

Gasteizko zaharrentzako zentro soziokulturalen ekimena da, eta hiriko bi auzotan gauzatu da (Pilar auzoan eta Landazurin) eta, gaur egun, Koroatzearen auzoan ari da ezartzen.

Helburua da beren etxeetan bizi diren adineko pertsonarik ahulenen beharrei erantzutea, auzoak abegikorragoak eta irisgarriagoak izatea sustatzen duen metodologia bat erabiliz, pertsona horiek beren eguneroko bizitzako jarduerak egiten jarraitu ahal izan dezaten: kaleetatik paseatu, lekuri gogokoenetara joan eta beste pertsona batzuekin harremanak izaten jarraitu.

Auzoan lan egiten duten eragileen artean lankidetzaren sare bat eratu da, eta hala programari buruzko informazioa eman, adinekoak detektatu eta haiei laguntza eskain dakieke. Adinekoek talde eragileetan duten parte hartzea aintzat hartzen da gero haiei interesatzen zaizkien jarduerak (hainbat gairi buruzko hitzaldiak, ibilbide seguruak, udako jarduerak eta abar) diseinatzeko, eta aurrez aurre ematen zaie auzoan eskaintzen diren baliabideei, zerbitzuei eta jarduerari buruzko informazioa —eta laguntasuna—, bakoitzaren premien eta interesen arabera.

1. Erakunde sustatzaileak

Gasteizko Udaleko zaharrentzako zentro soziokulturalen sareak sustatutako ekimena da.

Pilar eta Landazuri auzoetan hauek laguntzen dute programan:

- Zerbitzu publikoak: zaharrentzako zentro soziokulturalak, gizarte etxeak, osasun zentroak, oinarrizko gizarte zerbitzuak, kaleko hezkuntza programak, ikastetxeak, institutua eta eguneko arreta zentroa.
- Programan aholkatzen duten udal zerbitzuek: hirigintza, azpiegiturak, irisgarritasuna, udaltzaingoa, sustapen ekonomikoa eta herritarren parte hartzea.
- Erakunde eta elkarte pribatuak: auzo elkarteak, Cáritas, Kalimba, Forum 50-60, Secot, Helduak Adi, Arabako pentsionistak lanean eta Cadena de favores.
- Saltokiek: elikadura, ile apaindegia, bidaia, zapata denda, farmazia, ortopedia, kafetegia...

2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

3. Xede taldea

Etxean bizi diren eta egoera ahulean dauden adineko pertsonak.

Aldagai hauetako bat edo batzuk izan ditzakete: adin nagusia, gizarte harreman gutxi, bakardade edo isolamendu egoera, narriadura kognitiboa, baliabide ekonomiko mugatuak, eskura dauden baliabideak ez ezagutzea.

4. Lurralde eremua

Gasteiz (Araba)

5. Etiketak

Irisgarritasuna, mugikortasuna, hurbiltasuna, elkartasuna

6. Helburuak

Auzoak adineko pertsonentzat abegikorrakoak eta irisgarriagoak izan daitezen sustatzea.

Adineko pertsonak

Pertsonarik ahulenak identifikatzea eta laguntzea.

Adinekoak harremanetan jartzea.

Gozamenerako eta laguntza informalerako espazioak bultzatzea.

Auzoko baliabideei buruzko ezagutza eta haietarako sarbidea hobetzea.

Komunitatea

Adinekoen ezaugarriari eta premiei buruz informatzea eta sentsibilizatzea.

Auzoan lan egiten duten eragileen artean lankidetzaren sare bat eraikitzea.

Metodologia

Tokiko komunitateetatik pertsonekin lan egiteko modu berriak diseinatzea eta garatzea.

7. Metodologia

Programaren hasiera: 2016ko azaroa. Erdi mailako bi teknikari dira programaren arduradunak. Adinekoen zerbitzuko zaharrentzako zentro soziokulturaletako unitateko arduradunaren eta zentroetako zerbitzuak eta programak emateko kontratatutako enpresaren (Sirimiri) laguntza dute.

- 2016ko azaroa – 2017ko urtarrila:

Esku hartzeko metodologia diseinatu zuten, helburuak, hartzaileak (etxean bizi diren adineko pertsona ahulak) eta jarduteko auzoak (Pilar eta Landazuri) identifikatuta.

- 2017ko otsaila:

Programa erakunde talde bati (mentore taldeari) aurkeztu zitzaion, adinekoen errealtate sozialera egokitzeke.

Zaharrentzako zentro soziokulturalak eta bi auzoetako gizarte eragileak jakinaren gainean jarri ziren eta laguntza eskatu zitzaion.

Adinekoen talde eragileak abian jarri ziren. Astean behin bildu ziren, Pilar eta Landazuri auzoetako zaharrentzako zentro soziokulturaletan. Jarduera irekia eta doakoa da.

- 2017ko urtariletik azarora:

Talde eragileak: jarduerak antolatzea eta garatzea.

85 pertsonaz osatutako talde eragileak (55 Pilar auzoan eta 30 Landazurin) elkartu ziren, interesatzen zaizkien jarduerak diseinatzeko eta planifikatzeko:

- *Mannequin challenge* bat egin zuten.
- Osasun gaiei, gizarte baliabideei eta interesatzen zaizkien gaiei buruzko hitzaldiak eman zituzten.
- Programaren logoa diseinatu zuten.
- Udako jarduerak (gaurkotasuneko gaiei buruzko solasaldiak, paseoak eta jolasak) egin zituzten.
- Auzo bakoitzean esanguratsuak diren lekuak lotzen dituen ibilbide segurua diseinatu zuten (otsaila-maiatza). Identifikatzeko pegatina bat jarri zuten hiri altzarietan (azaroa).
- Elkarreetara, institutura, saltokietara eta beste eragile batzuegana jo zuten, programari buruzko informazioa emateko eta lankidetzak eskatzeko.

Lankidetzak sarea:

Programako profesionalek 179 topaketa egin zituzten zerbitzu publikoekin, erakunde pribatuarekin eta auzoetan lan egiten duten beste eragile batzuekin. Programa azaldu zitzaion, eta horietako 27k bat egin zuten harekin.

120 establezimendurekin jarri ziren harremanetan eta horietako 15ek trebakuntza jaso zuten eta, ondorioz, establezimendu lagunkoiaren zigilua lortu zuten. Establezimendu horiek sentikorrak dira adinekoen premiekiko, eta, behar izanez gero, haiei laguntzeko prest daude.

Establezimendu lagunkoiaren zigilua erakunde eta zerbitzu publikoei emateko aukera planteatu zitzaion Euskadi Lagunkoiari. Prestakuntza hori bideratzeko, 128 adineko eta adierazitako zerbitzu publikoek galdetegi bat bete zuten eta txosten bat egin, Euskadi Lagunkoira bidaltzeko. Prestakuntza horrekin, 2 gizarte etxek, 3 osasun zentrok, zaharrentzako 2 zentro soziokulturalak eta eguneko arretarako zentro batek eta tutoretzapeko apartamentuek establezimendu lagunkoiaren zigilua lortu zuten.

Uda ostean, saltokien eskaera berriak jaso ziren, prestakuntza jasotzeko eta programan laguntzeko.

Informazio eta laguntza pertsonalizatua.

Programako profesionalek auzoek zer baliabide eskaintzen dituzten jakinarazi zieten adineko pertsonari. 49 kasutan arreta pertsonalizatuagoa behar dela antzeman zen, eta pertsona horiekin batera joan ziren haien interesekin eta premiekin bat datozen baliabideetara eta jardueretara: ikastaroak, lantegiak, jantoki zerbitzua...

Zabalkundea

Maiatzean gutun bat bidali zitzaien bakarrik bizi diren 70 urteko eta gehiagoko 1.716 pertsonari, programaren berri emateko eta udako jardueretan parte hartzera gonbidatzeko.

Irailean, programaren informazio liburuxkak diseinatu ziren.

Urrian gutun bat bidali zitzaien auzo horietako bizilagunei programaren berri emateko eta ibilbide seguruaren inauguraziora gonbidatzeko.

Azaroan udal partaidetzako organoan aurkeztu zen proiektua, Adinekoen Elkargunean.

Udako jarduerak

Ekainean eta uztailan egin ziren. 35 pertsonak hartu zuten parte. Aurretik % 80 ez zen zaharrentzako zentro soziokulturaletara joaten, eta horietako 9 talde eragileetan sartu ziren.

Prestakuntza

Uztailan, prestakuntza eman zitzaien saltoki eta zerbitzu publikoei (gizarte etxeak, oinarritzako gizarte zerbitzuak eta abar). Adinekoen ezaugarriei buruzko informazioa eman zitzaien. Euskadi Lagunkoia eman zuen. Parte hartzaileei pegatina bat eman zitzaien beren egoitzetan eta establezimenduetan jartzeko. Horretaz gain, zerbitzu publikoei baliabide horietarako berariazko gomendioak biltzen dituen dosierra eman zitzaien.

Ibilbide segurua

Adinekoen ibilbide segurua diseinatu ondoren, hirigintzako, mantentze lanetako, udaltzaingoko eta sustapen ekonomikoko udal zerbitzuek horiei buruzko aholkuak eman zituzten. Horren ondorioz, hiri altzarietan pegatinak ipiniz identifikatu ziren ibilbideak.

Urrian inauguratu ziren. 82 lagunek hartu zuten parte Landazurin, eta 157 lagunek Pilarren.

Ibilaldiak ibilbide seguruetatik

Azaroan hasi ziren ibilbide seguruetan barrena eginiko ibilaldiak, astean behin eta ordubeteko iraupenarekin.

- 2017ko abendua

Esperientziaren ebaluazioa

Programa abian jarri zenetik urtebete igaro ostean, emaitzen eta prozesuaren balorazioa egin zen.

Guztira 463 pertsonak hartu zuten parte, eta egindako ekintzek benetako eragina izan zuten auzoko bizitzan: lankidetzaren sarea, udako jarduerak, ibilbide seguruak...

Talde eragileetan 85 pertsonak hartu zuten parte; horietatik % 78 emakumeak (% 70 bakarrik bizi dira eta 81 urteko batez besteko adina dute). % 60 ez zen aurretik beste jarduerara batzuetara joaten.

Pertsonak programarekin pozik daudela esan zuten, bakardadeari aurre egiteko aukera emateaz gain, bizi kalitatea hobetu baitie. Eta, gainera, beste pertsona batzuekiko harremanen eta harreman sozialen kopurua eta kalitatea handitu dute.

- 2018ko otsaila

Ebaluazioaren emaitzak Udaleko Gizarte Politiketako Batzordean aurkeztu ziren. Emaitzetan oinarrituta, esperientzia beste auzo batera, Koroatzearenera, zabaltzea planteatu zen, bideragarri eta jasangarritzat jo ondoren. Hainbat arrazoiengatik

aukeratu zen auzo hori: auzoko biztanleriaren % 30 pertsona nagusiak dira, beste bi auzoen ondoan dago eta 2018an obra eta egokitzapen garrantzitsuak egingo dira etxebizitzetan eta bide publikoan.

Beste bi auzoetan eutsi egin zieten talde eragileen asteroko bilerei eta ibilbideetako ibilaldiei. Talde horiek, profesionalen laguntza behar badute ere, gero eta autonomoagoak dira.

- 2018ko otsaila eta martxoa

Programaren berri eman zen irratia, Judimendiko Auzogunearen eta abarren bidez.

Proiektua Forum 50-70 elkarteari aurkeztu zitzaion. Talde eragileetako bateko partaide zen adineko pertsona batek bere bizipena eta esperientzia aurkeztu zituen. Landazuriko eta Pilarreko talde eragileak: jarduerari eutsi zioten.

Auzo horietako ibilbide seguruetan barrena eginiko ibilbideek bere horretan jarraitu zuten.

Programaren berri eman zen Koroatzearen auzoko zaharrentzako zentro soziokulturalean, eta auzo horretan lan egiten duten eragileekin lankidetzan hasi zen. Talde eragilea martxan jarri zen auzo horretan.

Nabarmentzekoa da Santa Maria ikastetxeko lehen hezkuntzako bosgarren mailako ikasleekiko lankidetzak. Lau topaketa egin ziren Landazuriko eta Pilarreko talde eragileetako adineko pertsonekin, eta lagunkoitasunaren kontzeptua eta adineko pertsonekin loturiko estereotipo negatiboak landu zituzten.

Hobetu egin zen Udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa, egoera ahulean ziren adineko pertsonen eskaintako arreta hobetzeko. Arreta ematen dieten eta programari etekina atera diezaioketela uste duten pertsonak zuzenean bidera ditzakete.

8. Alderdi berritzaileak

Pertsonekin lan egiteko metodologia berri bat da. Harremanean, akonpainamenduan eta parte hartzean oinarritutako sormen elementuak erabiltzen ditu. Helburua gizarte kohesiorik eta ongizate indibidualik handiena lortzea da, bai eta inplikazio eta parte hartze pertsonala eta instituzionala ere, parte hartzaileen autonomia eta potentziala aintzat hartuta.

Pertsonak beren auzoko baliabideekin harremanetan jartzen dira, gizarte arazo bati erantzun kolektiboa emateko.

Hurbiltasun aktiboko metodologia erabiltzen da; hau da, zailtasunak dituzten pertsonen *bila* joatea. Horri esker, etxean bakarrik dauden eta antzematen eta laguntzen errazak ez diren pertsona ahulengana irits daiteke.

Programa zuzentzen zaien pertsonak beraiek antolatzen, diseinatzen eta ezartzen dituzte ekintzak eta jarduerak. Horrela, diseinatzailekide bilakatzen dira eta rol garrantzitsua betetzen dute, programa hedatzeko, pertsonak erakartzeko eta partaidetza sustatzeko zein jarduerak garatzeko lanean. Eta, berez, arazo sozial partekatu baten erantzuna dira, adinekoen bakardadearen arazoarena, alegia.